

PROPOSAMENA

.- Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren aldaketa:

“11.- artikulua.- Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politiko bakoitzarentzako diru-kopuruak.

Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politikoen diru-kopuruak, “912.00-Gobernu Organoak” gastu programan jasotako aurrekontu partidetan jasoko dira.

Alkateari eskumena ematen zaio, berariaz erabakitzeke zein kidek beteko dituzten dedikazio osoko karguak, zeinek dedikazio partzialeko karguak, eta aplikatu beharreko soldata mailak, talde politikoen proposamenak kontuan hartuta, eta beti ere aplikagarria den araudia eta honek ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

Hori horrela, aplikaziorako irizpide hauek finkatzen dira:

11.1.- Erabateko dedikazioa aitortzen zaie automatikoki alkateari eta, gehienez, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta eskuordetza duten zinegotzien artean hark izendatutako hiru (3) zinegotziri. Modu honetan ezartzen den liberazio oso eta partzial metatuen muga, lau (4) lanaldi osokoa izango da. Izendapen horien berri Udalbatzari emango zaio, hurrengo osoko bilkuran.

11.2.- Beren kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten Udalbatzako kideei kargua hartu aurretik zuten soldata maila bermatuko zaie, eta gutxienez, honako kopuru hauek (urteko soldata gordina):

- Alkatea: 46.768 euro (udal lan hitzarmeneko 23. maila).

- Kargua dedikazio osoarekin betetzen duten Udalbatzako kideak: 31.889 euro (udal lan hitzarmeneko 13. maila).

- Soldata maila hauek urtero egokituko dira Langileriarri aplikatutako igoera indizeen baitan.

11.3.- Dedikazio partzialak, proportzioz ordainduko dira dedikazioaren arabera, baina beti ere, gutxienez %20-ko dedikazioa beharko da ordain saria jaso ahal izateko. **Dedikazio partzial honek gehineko muga izango du, udalean nahiz kanpoan duten dedikazio partzialen baturak ezingo baitu %100eko lanaldia gainditu. Udalaz kanpo duten dedikazioa eta soldata, enpresa ziurtagiri bidez kreditatu beharko dira.**

11.4.- Udal-talde politiko bakoitzari dagokion diru-kopurua: alde batetik kopuru finkoa jasoko dute: 639 euro hileko; eta bestalde, kopuru aldakorra: 197 euro zinegotzi bakoitzarengatik.

11.5.- Oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eksklusiboa izango du, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde emaitzen arabera ordezkari kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Botoberdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan.”